



4. ildo: 17-23 URTE BITARTEKO GETXOTARREI GIDABAIMENA ATERATZEKO AZTERKETA EUSKARAZ EGITEAGATIK DIRULAGUNTZAK EMATEA

1.- HARTZAILEAK

Eskatzaileak, Getxon erroldatutako 17 eta 23 urte bitarteko gazteak izango dira (1998-2004 bitartean jaiotakoak), gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egin dutenak.

2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- 2.1.- Eskatzaileak gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egin duela ziurtatu beharko du.
- 2.2.- **Gidabaimena euskaraz kanpainan parte hartu duen Getxoko autoeskolaren batean atera beharko da, gidabaimena (ikusitako zerrenda udal webgunean).**
- 2.3.- Eskaria aurkeztu orduko, matrikula ordainduta eduki beharko da.
- 2.4.- Dirulaguntza eskatu ahal izateko azterketa eginda izan behar da. Azterketa teorikoa 2020an edo 2021ean egindakoa beharko du izan eta horri dagozkion ordainagirik 2020koak edo 2021ekoak beharko dute izan.
- 2.5.- Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein erakunde publikok zein pribatuk ematen dituenekin, baina dirulaguntza guztien artean ezin izango da jaso matrikularen zenbatekoa baino gehiago.

3. DIRULAGUNTZA KOPURUAK

Matrikulak lagunduko dira baina ez tasak; laguntzen esparrua hau izango da:

- Azterketa teorikoa euskaraz egiteagatik eskatzaileak, **gehienez, 110 euro jasoko ditu.**
- Azterketa teorikoa euskaraz egiteagatik gazteek jasotzen duten dirulaguntza behin bakarrik jaso ahal izango dute.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

<p>4.1.- Dirulaguntza eskaera Dirulaguntza eskaera - Euskara Zerbitzua izeneko inprimakia beteta (ikus eranskina), kontu korrontearen zenbakia (IBAN kodeari dagozkion 24 digitu) jasota utziz.</p>
<p>4.2.- Gastuen ordainagiriak Gidabaimena ateratzeko, teorikoan edota praktikoan, eskatzaileak izandako gastuen jatorrizko ordainagiriak (matrikula, azterketa tasak eta abar).</p>
<p>4.3.- Azterketa euskaraz egin izana ziurtatzea Eskatzaileak ziurtatu behar du azterketa teorikoa euskaraz egin duela. Getxoko Udalak kontsultak egin ahal izango ditu Dirección General de Tráfico datuetan, dirulaguntza eskatzaileak azterketa euskaraz egin duela frogatzeko, baldin eta interesduna datu horiek kontsultatzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.</p>
<p>4.4.-Zerga betebeharrak egunean izatea Eskatzaileak ziurtatu behar du zerga betebeharrak ondorengo erakundeekin egunean dituela:</p> <p>4.4.1.-Ogasunarekin Zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen Ogasuneko ziurtagiria aurkeztu beharko du eskatzaileak. Ziurtagiri hau, dirulaguntza eskaeran AITORTZEN DUT atala beteta ordezkatu ahal izango du.</p> <p>4.4.2.- Gizarte Segurantzarekin Getxoko Udalak kontsultak egin ahal izango ditu, dirulaguntza eskatzaileak Gizarte Segurantzarekin zorrik baduen ikusteko, baldin eta interesduna datu horiek kontsultatzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.</p> <p>4.4.3.- Getxoko Udalarekin Getxoko Udalak ofizios egiaztatuko du eskatzaileak zorrik ba ote duen Getxoko Udalarekin. Eskatzaileak Udalarekin zorren bat badu Udalak interesdunari jakinaraziko eta zor hori ordaintzeko (edota</p>

zatikapena eskatzeko) epea emango dio. Egoera epearen barruan zuzenduz gero, Udalak interesdunaren aldeko dirulaguntza ematea erabakiko du. Zuzentzen ez badu, ordea, Udalak ukatu egingo dio dirulaguntza, ez duelako onuraduna izateko baldintzetako bat betetzen.